

44/2022 EBAZPENA, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESiko Zainketa Aringarrien Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen maiatzaren 21eko 708/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa bat egin zen Donostialdeko ESiko Zainketa Aringarrien Zerbitzu Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko irailaren 28ko EHAA 194 zk eta 2021eko urriaren 5eko BOEn 238 zk.

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun baliodunek epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2021eko urriaren 27an amaitu zen.

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen urriaren 29ko 1363/2021 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horrek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertzeiko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Zainketa Aringarrien Zerbitzu Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. Eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaió Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2022ko urtarrilaren 19an

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.
(53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.

LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

I. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO ZAINKETA ARINGARRIEN ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIAN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Cristina BEREZIBAR OYARZABAL

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

II. ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO ZAINKETA ARINGARRIEN ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua

Titularra: Miren Idoia GURRUCHAGA ARRIOLA and.

Ordezkoa: Ana CALVO AGUIRRE and.

Lehenengo batzordekidea

Titularra: Maria Teresa MARTINEZ ZABALETA and.

Ordezkoa: Adolfo BEGUIRISTAIN GOMEZ jn.

Bigarren batzordekidea

Titularra: Xabier GOICOECHEA IRAOLA jn.

Ordezkoa: Manuel FERNANDEZ RODRIGUEZ jn.

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Sara AREVALO LOBERA and.

Ordezkoa: Josep Manuel PIERA PIBERNAT jn.

Laugarren batzordekidea

Titularra: Raul DE FRUTOS PARRA jn.

Ordezkoa: Sorkunde TELLETXEA BENGURIA and.

Idazkaria

Titularra : Esther LITAGO SOLA and.

Ordezkoa : Pilar SÁNCHEZ GARDUÑO and.